

Aretxabaleta,
1992ko irailak 10

Aretxagazeta

Maria Wörth-etik Atxabaltara

• *Eskolara buelta.*

• *Bueltatua:
Juli Ayasatuy.*

• *Kirolak:
Juan Ramon
Aranari,
homenaldia.*



Joan den domekan hasi zen futbol kanpaina barria UDArendako. Pre-tenporadan ez zuen lehenengo ekipoak zorterik

U.D.A ez da futbola bakarrik

izan eta hau aste osoan zehar sentitu ahal izan dugu zerbait da.

Baina, gure helburua ez da ekipo haundia bakarrik, U.D.An dauden beste sekzio guztiekin berdina egin gura dugu. Oso gutxi berba egin zen igaz errejionaleko 1go ekipoak lortutako emaitza eta gutxiago ekipoaz.

Baina 1go errejionaleko ekipoa partaideek ere merezi dute aipamen txiki bat.

Gogorra egiten zait esatea baina U.D.An lan egiten dugunok kezkatzen gaituen errealitate bat da.

Askotan 1go futbol ekipoak izan duen emaitzen-gatik kontuan hartzen gaituzte eta U.D.A-n futbolaz aparte, beste lau sekzio daude: pelota, txirrindularitza, atletismoa eta mendia. Hori denori aurren, 9 milioitako presuestoarekin. Horretaz aparte gehiena futboleka joan arren, presupuestoa sekzio guztiendako da.

Sail horietako batzuk oraindik ez dute tenpora-da hasi eta beste batzuk ez dute bukatu. Beraz klubeko aktibitateak iraunkor-rrak dira eta ez dira futbolerak bakarrik murrizten, nahiz eta lan gehiena fut-

bol taldeetarako izan, eta ni naiz hori esaten lehe-na.

Baina hori errealitate bat da, gainera kontutan euki behar dugu, neska-mutil gehien mugitzen duen sekzioa dela: Aretxabaletako futbolak, Almenekin batera 200 neska-mutil mugitzen ditu eta noski denek ez dute preferenteko 1go ekipoaz jokaketan.

Bukatzeko aurtengo helburuak hauek direla esango nuke: taldearen exitoa, konpetizioetan eta parte hartzen duten probetan eta azkenik, kirolari bakoitzaren arrakasta.

" U.D.An futbolaz aparte, beste lau sail daude: pelota, txirrindularitza, atletismoa eta mendia."

Eduardo Altube.
U.D.Ako zuzendaria.

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Goretti Ayastuy, **Argazkiak:** Josu Lazkano **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da

Zer daukazu esateko?



Iker Gorostiza
(Ikaslea)

Gazteendako lokalak falta direla uste dut. Euria egiten duenean non-baiten egoteko tokiak.

Nik uste dut, gazteendako gauza gehiago behar direla.



Mirei Frutos
(Ikaslea)

Kanpoko piszinak falta dira, eta baita parkeak eta bizikletaz ibiltzeko lekuak ere.

Guretao gauza gehiago behar dira.



Jabi Rosado
(Langabetua)

Nire ustez txarto dago auzoetako jaiak kenduaz joatea: Arkarazokoak... Jai horiek ospatzen jarraitu beharko litzateke, ohiturak jarraituz.



Mainer Arando
(Ikaslea)

Guretao Atxabaltan ez dago gauza haundirik, zerbait antolatu beharko litzatekeela uste dut.

Denbora pasetako zerbait antolatu: jai gehiago, gauza gehiagokin. bestela aspertu egiten gara kalean.

GERO GEROKOAN.

ORAIN EUSKARAZ BIZI!

aek
Lan erakundeak

ERDU -AEK EUSKALTEGIA

Garibai etorbidea 14 znb 3

Tfnoa: 77 03 69

ARRASATE

Matrikula epea:
Irailak 7tik 25a bitartean



ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA ARETXABAETA



Agorreko Andramaixak Areantzán

Joan den astebukeraren irailaren 4, 5 eta 6an Areantzako jaiak, Agorreko Andramaixak, ospatu ziren.

Ekintza aipagarrien artean eguakotxean egin zen afari herrikoia izan zen eta bertan 86 lagun alkartu ziren. Afalostean, gabeko 11,30etan, tanborrada egin zuten Garaikotik Elixondora. Edade guztietako arientzarrak parte hartu zuten tanborradan.

Zapatuko ekintzarak aipagarriena kanpai joleen 1go topaketa izan zen. Tokaketa horretan 4 auzotako ordezkariak alkartu ziren: Areantza,

Korueta, Azatza eta Larrinokoak. Partaideak Agustin Iturbe, Alberto Lasagabaster, Anjel Mari Izurrategi eta Juan, Felix, Eugenio eta Fermin Madinabeitia anaiak izan ziren. Errepika joleen exhibizioa oso entetengarria izan zen. Ikusleak oso gustora utzi zituzten.

Domekako ekintzarik aipagarrienetakoa, arratsaldeko 7etan egin zen 7. Arosartze txapelketa izan zen. Ehun bat partaide izan ziren txapelketan.

Areantzako Andramaixetan jaiak animetan Iñigo Madinabeitia soinu-jolea ibili zen.



Pagaldaienekoa etxea

Andramari ostean Pagaldaienekoa taberna itxi egin dute. Urte askotan gure artean egonda gero janari gozoak prestatuz. Baina artkulu honetan etxeaz jardungo dugu.

Etxea bera, barrizatzen dabiltzala ere kontratutako zineten, obbroak egun osoan lanean, kotxeak pasetako leku gutxiago, hautsa...

Lehenengo etxearen fatxada eta kubiartak barrizteko asmoa daukate eta aurrerago barnealdearen barriztazeak jarraituko dio. Hori denor 3 edo 4 hilabete-tako lana izango da.

Fatxada manpesteriako da eta hau tirole-sarekin pikatu eta arrasatu behar dute, orain arte ikusi ahal izan dugunez.

Gero pintatu egingo dute. Udalak Durana kaleko etxeak txukuntzeko daukan proiektuan sartuta dago. Leihoak eta aroztegiko konponketak ere egingo dizkiote fatxadari.

Etxe horrek, Pagaldaienekoa etxeak, 120 urte ditu eta hasiera batean "Vasco Cerrajera"-ren ofizinetarako eraiki zen orduan. Gero etxebizitzetarako garbitua izan zen.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12

ARETXABALETA

IMANOL ALTUBE

ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK

Durana, 36
Tfnoa: 79 10 60

ARETXABALETA

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43



Eskolara bueltan

Bukatu dira oporrak eta barriro bakoitza bere lanera bueltetako ordua heldu da: helduak lanera eta umeak eskolara. Guraso asko eta asko desietan egongo dira ikasturtea hasteko, etxean pake apur bat eukitzeko; baina umeak, eurek, ba ote dute gogorik eskolan hasteko? Behar bada txikienak bai, barriro lagunak ikusiko dituztelako. baina helduagoak ez dute horrenbeste gogo izango, berriro liburu artean sartu behar; ikasi eta azterketak egiteak ez du ilusio handirik egiten.

Aurten eskolaurrean sartzen diren umeak, ez dira asko, aurreko urteotan baino gutxiago izango dira. Txiki hauendako nobedadea izango da eta behar bada hauek hasieran nahiko arazo emango diete bai irakasle eta baita gurasoei ere. Irailaren 14 goizean udal eskolaurrea eta Santa Rita ikastexeko ateetan negar batzuk entuztelako. baina helduagoak ez dute horrenbeste gogo izango, berriro liburu artean sartu behar; ikasi eta azterketak egiteak ez du ilusio handirik egiten.

gehiago izango dira, aurtentzen 75 dira gela bitan banatuta.

Aurten erreforma dela eta nahiko zarata izan da. Erreformak irakaslearen aldetik kontzientziario eta prestakuntza haundiagoa eskatzen du. Ikasleengan aplikatu baino lehen irakasleak prestatu egin behar dira, horretarako aholkulari bat izango dute zentro bakoitzerako. Aldaketa horrekin ikasleari praktikotasun lantzea gura da eta egunerokotasunarekin eta ingurugiroarekin gehiago lotzea.

Baina Atxabaltako eskoletan aurretik dabilta lan horretan, orain dela urte bi hasi ziren erreforma hori poliki-poliki sartzen, nahiz eta aurtengo kurtsoan egin ofizial. Beraz, hemen ez da holako aldaketa inportanterik emango.

Eskola guztiak 14ean hasiko dira martxa normalean eta egun horretatik aurrera ez da umeen zaratarik entzungo kaleetan arratsalderarte behintzat. Ama batzuek dako lasaitasun ederra.

• Irailerako Murruxiko mendizale taldeak espeleologia ikastaroa antolatu du. Apuntatu gura duzuenok izen emoteko joan zaitzete Murruxikoren lokalera.

• Datorren domekan Kurtzebarriko eguna ospatuko da. Egun zoragarri horretarako, Murruxikok, Kurtzebarriko urteera, goizeko 9etan egingo du partenoitik. Bertan, 11,30etan meza Santua egongo da eta gero, salda, txanpana... Soinujoleak eta txalaparta ere han egongo dira. Bazkaitteko, etxera buelta.

IRIARTE
Umeen denda



DURANA, 8
Tfnoa: 79 10 96



**Aretxabaletako
industrialdea**

Basabe poligonoa B-0
Tfnoa: 79 62 80

LEIBAR
ARRAINDEGIA



Mitarte kalea, 1

Tfnoa: 77 13 79

ARETXABALETA



Everesteko azken notiziak

Jose Ramon Zubizarreta, eta Alberto eta Felix Iñurategi anaiek osatzen duten espedizioa da goeneko Everest inguruan dabilta.

Abuztuaren 26an lehen kanpamendura heldu ziren eta orain azkeneko berrien arabera, faxean ikusten daitekeen bezala, montatu dute kanpamendua. Eguraldiak horrela jarraitzen badu laster helduko dira goraino.

Aretxagazetari, Murruxio mendizale elkarrekin, honako karta hau ekarri dio:

" Everesteko behe kanpamendutik, irailak 1.

Gaur irailak 1, lehenengoko kanpamendua montatu dugu. Izotz kaskada lau ordutako igoera

baten ondoren iritsi gera 6.100mtara.

Eguraldia ezin hobea dugu, beraz horrela jarraitzen badu laster batean 2. kanpamendua ere montatu ahal izango dugu.

Atzo ireki zuten izotz kaskada, baina gu ospakizunetan egongo ginen, espedizioaren bedeinkapena izan bait genuen.

Besterik gabe agur bero bat eta laister arte."

Beraz, oraingoz zorrite ona daukate eta horrela jarraitzea espero dugu eta hemendik gure animoak bidaltzen dizkiegu.

Ea hurrengo kartan notizia berdina edo hobeak heltzen zaizkigun.

UDALETIK

Udal plenoa

Irailaren 8an, martizenean arratsaldeko 6etan udalbatzararetoan udalbatzarra izan zen. Bertan honako gai hauek proposatu ziren:

1.- Idazkaria lanetan, izendatzea.

2.- Idazkari lanpostua, behin behinikoz bertzearren aukera egiteko oinarrien onarpena.

3.- Arcepafe (langileen konbenioa) 1992.

4.- Mitarte 17ko Udal ondarea den lokala (gaur egungo korreosa) saltzeko, 1991ko otsailaren 22an hartutako erabakia baieztatzea.

5.- Kontsumatzaileen informaziorako udal bulegoa: kontsumoko Bat-

zorde Sektoriala sortzea. 1992ko ekainaren 6ko aginduaren babesean dirulaguntza eskaera egitea.

6.- Banco de Credito Local delakoarekin diru mailegua.

7.- "Udal Hilerria zabaldu eta Ingurua Hiriztatzea." Egistamoak aurrikusten duen erara, ikurutako lur sailak erostea.

8.- "Udal hilerria zabaldu eta ingurua Hiriztatzea." Egistamoko lanak: Burutzekotan diren lanak bereiztu eta enkantea egiteko deialdia.

9.- Areantzara herriko ura eramateagatik egitasmoa.

Arantzazura peregrinazioa

Irailaren 7an astelehenean Arantzazura peregrinazioa izan zen, tradizioa jarraituz irailaren lehenengo astelehena zela eta. Hemendik 4 autobus urten zuten, nahiz eta bateronbatzuk oinez joan. Oinez animatu zirenak hauek izan ziren: Bixente Etxeandia, Joakin Lizarralde, Joxe San Migel, Maria Josefa Arenaza, Fermin Lasaga-

baster, Arantxa Garzia Etxabe eta Joxepa Garzia Etxabe.

Meza nagusia 11etan izan zen Mikel eta Don Bitoriano izan ziren joan ziren abadeak. Gero bazkaria izan zuten hospederian 160bat lagunek eta Udaletxeok Zelai-Zabalen . Arratsaldean errosarioa izan zen eta gero barrero bueltan etxera.

Orain arte aldizkariaren sail honetan herriko elkarte desberdinei buruz jardun dugu. Zerbaki honetatik aurrera ofizioak diren afizioei eskaini gura diegu orrialde hau. Sail barri honi hasiera emoteko Jesusarekin egon gara. Jesusa joskina da eta bere afizioa banderina egitea. Argazkian ikusi daitekeenez, Jesusak egindako azkenengo banderina Etxebarren medikuari eman zitzaion.



UDAKo banderina

Jesusak, 17 urte zituela ikasi zuen bordetan. Gasteizera jaon zen Singer etxera eta han egunean ordu batzuk sartuaz bordetan ikasi zuen. Hasieran eskuzko makinekin bordetan zuten, ez gaur egun moduan, makina automatikoekin. Bordetan zekienez, U.D.Ako banderina egiten hasi zen. Banderin horiek, ekipo barriak etortzen direnean ematen dira.

• **Noiz hasi zinen banderina egiten?**

• 17-18 urterekin. U.D.A 46an hasi bazen banderina ematen, ni 47an hasi nintzen.

• **Nondik daukazu afizio hori?**

• Bordatzea betidanik gustatu zait. U.D.Ak esan zidanean, afizioarekin jarraitzea erabaki nuen.

• **Zenbat denbora behar da banderina egiteko?**

• Egun bat behintzat behar da.

• **Zer da gaxena banderina bat egitean?**

• Gaxena, eskudoa da. Gainera hasieran eskudoak askoz detaile gehiago zukan eta lan gehien, detaile horrekin daukate.

• **Zer material erabiltzen duzu eskudoak egiteko?**

• Razosko tela urdin batean egiten nuen, gainean zetazko banda ja-

rriz. Goian, U.D.A eta kanpoko ekipoaren izena eta behean datak. Ondoren eskudoa bere kolore guztiekin eta goian kordoitxo U.D.Ako kolore biak erroskatuta.

• **Zeintzuk dira banderina daramatzan koloreak?**

• Mendia berdez doa. San Migelen kaskoa gris, aurpegia larrosa tonu batean, hegala grisak eta txuria nahastuta eta txalupa marroiz. gero dena baltzez marketan da eta letarak beti laruz egiten dira hobeto ikusi daitezten. Nik jarritako kolore hauek mantendu egiten dira orain arte.

• **Badaukazu anekdotarik banderina egiten zenituenekoak?**

• Behin U.D.Akoek berandu esan zidaten banderina egiteko eta partidua hasita gero eraman nuen, orduan deskantzu eman zieten. Beste behin, Beldarrerako futbol zelaia inauguratu zenean, gauz argia kendu ziguten eta ezin izan nuen garaiz bukatu. Hala ere, gustora egiten dena.




**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**

MIKELOS

LINEA ESTILO

Iparagarre, 3
Tfnoa: 79 36 67



LENIZ

LIBURUDENDA


**HERRIKO
PLAZA**

Tfnoa:
791616

**ARETXABALETA
IFURGINTZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Jakin dugunez Österrei-
ch-ko (Austria) delega-
zio ofiziala ei dator
Euskal Herrira, eta
konkretuki Aretxabale-
tara. Ekintza hori Maria
Wörth-ekin dugun
"anaitzearen" ondorioa
dela pentsatzen dugu.
Dena dela, Alkate-or-
dearengana jo dugu,
bera da eta bisita ho-
rren koordinatzailea.



Maria Wörth eta Atxabalta eskutik ebatuta

• **Zer dela eta bisita
hau?**

• Badakizue orain dela
urte batzuk Maria Wörth
eta gure herriaren arteko
"anaitzea" egin zela. Eurek
dagoeneko bisita bi egin
dituzte Atxabaltara; gu ere
han izan gara, baina eza-
gupen geografiko fisikotik
aurrera ez dugu jo. Gure
ustez esparrua zabaldu
egin beharko litzateke eta
horregatik jostioak eginda
gero, harremanetan jarri
ditugu Eusko Jaurilaritza
eta Karintiako Gobernu-
a. Bisita hau horren ondorioa
da.

• **Nortzuk etorriko
dira?**

• Zortzi dira Karintiatic
etorriko direnak. Bertako
Lehendakari den Christoff
Zernato jauna, bere Go-
bernuko bost Sailburue-
kin (Industri, Merkatal
Ganbara, Turismo, Neka-
zaritza eta Finantzetako
arduradunekin hain zuzen
ere); eta ordezkarri inpor-
tante horiekin batera
Nikolaus Lanner Maria
Wörth-eko Alkatea, eta
guzti honen "alma mater"
den Karl Burgstaller Jau-
na.

• **Askotan entzuten
ditugu Maria Wörth eta
Karintia, baina zelakoak
dira?**

• Beno, esan beharra

• **"Hori
izan daiteke
Aretxabale-
taren eko-
nomi etor-
kizunerako
zutabe ga-
rrantzitsu
bat."**

• Esan beharra dago
Karintia (Kärnten euren-
dako) Austriako eki-he-
goaldean kokatutako lur-
ralde autonomo bat dela,
bere Gobernu, Legebiltzar
etabarrekin. Bere hiriburua
Klagenfurt da eta 11 kilo-
metrotara Wörthersee
lakuaren inguruan dago
Mari Wörth, beste herri
batzuekin batera. Hau he-
rri txiki bat da (1000 biz-
tanle neguan eta 6000
udan) eta tuismora de-
dikaturik oso osoan.

• **Turismoa eta lakua
aipatzen dituzu, beste
Urku antzeko bat?**

• Ez, Ez dute zer ikusi-
rik. Alde batetik, hura as-
koz handiagoa da eta ber-
tako biztanleek oso argi eta
garbi dute euren bizimo-
dua dela, beraz jokaera
guztiz errespetutsua da
lakuarekiko. Dena dela eta
aipagarria da, laku horre-
tan hainbat kirol egiten
dela: estropadak, ur gai-
neko eskia, txalupak, lan-
txa motorak, eta era ber-
dinean jendeak igeri egi-
ten du, lasai-lasai, eta zer
esanik ez, arrainak, paittak
eta beste zenbit animalia
bizi dira bertan.

• **Kontetan diguzu-
nagatik leku polita diru-
di?**

• Behar bada, gehiegi
esatea litzateke, baina
ikusgarria da jendearen
errespetua naturarekiko
(zentzu zabalean, ez
bakarrik lakua). Eta ez du
zer ikusirik "ekologista"
etiketarekin. Jendeak ba-
daki hura denona dela, eta
denok disfruta dezaten
eta iraun dezan errespetu

osoz jokatu behar dutela. Inpresio hori ez da nirea bakarrik, froga dezakezue orain urte bi, bertan Maria Wörth-en egon ziren atxabaltarrekin.

• Eta zer atara daiteke "anaitze" horretatik, harreman horietatik?

• Gure helburua bi il-dotatik luzatuko genuke. Bata industri mundua, ea lortzen dugun elkar-inbertsiozko entpresa txikiak, bertako giza kapitala, hau da, hemengo jende gazte preparatuek ez dezaten alde egin. Guk uste hori izan daitekeela Atxabaltaren ekonomi etorkizunerako zutabe garrantzitsu bat. eta arlo horretan badute zer erakutsi eta eskaini karintiarrak.

Eta bestetik kultur-turistikorik arloan ea lortzen dugun giza flujo bat, handik honuntza eta batez ere hemendik haruntza, jendeak bertan aleman ikas dezan eta herri bien arteko harremanak sendotuz elkar ezagutu dezagun.

Datorren urteko udal aurrekontuetan partida bat jasoko dugu beka batzuren bidez jendea bertara joan eta aleman ikasten animatu dadin. Merezidu.

• Noiz datoz Karintiako ordezkariak? Badago egitaraurik?

• Irailaren 16an, asteazkenean etorriko dira Gasteizera. Handik Atxabaltara, hemen harrera egingo diegu, lan saio batzuk, Maria Wörth eta Industrialde berria inaguratu, folklore pixka bat (dantza,



txistu, abesbatza, etab...).

Gero, hurrengo egunean, irailaren 17an Bilbora joango dira eta handik barriro Gasteizera, Jose Antonio Ardanza Lehendakariarekin elkarriketa izango dute Ajuria Enea jauregian eta Eusko Jaurlaritzako sailburuekin lan saioak egingo dituzte.

Gauzak eta ideiak sakondu eta aztertuta gero konpromezu batzuetara heltzeko. Ilunkaran Klagenfurt-era itzuliko dira.

Lerro hauen bidez eta Aretxagazeta aldizkariak eskaintzen digun aukera aprobetxatuz atxabaltar guztiei inbitazioa luzatu gura diet, irailaren 16an, eguaztenean, arratsaldeko 5etatik aurrera batez ere, herriko udaletxe inguruan azaldu daitezten Korintiako ordezkariak eta Maria Wörth-eko alkatari ongi etorria ematearaino.

Egitaraua

Irailak 16, eguaztena

- 10.45.- Gasteizko aireportuan harrera
- 12.00.- Atxabaltako Udaletxean harrera
- 12.30.- Lan bilerak
- 13.30.- Industrialde berriaren inagurazioa, eta bisitaldia
- 17.00.- Maria Wörth pasealekuaren inagurazioa.
- 17.30.- Karintia eta Euskal Herriko ikurrinei agurra.
- 17.45.- Folklore saioa.
- 18.15.- Oroigarri eta makila ematea Karintiako Lehendakariari.
- 20.00.- Afaria.
- 23.00.- Despedida.

Irailak 17, eguena

- Bilbotiik urtenda, Zamudioko teknologi parkea bisitatuko dute.
- Handik, Gasteizera. Jaurlaritzako arduradunekin lan saioa.
- Bazkaria.
- Klagenfurt-era itzulia.

Juli Ayastuy: Atxabaltatik Afrikara

- Non jaio zinen?
- Ojala-zelain, Azat-zan.

• Noiz joan zinen Atxabaltatik?

- 1953an Uhartera (Nafarroara) joan nintzen eta gero 1967an Togo-ra, Afrikara.

- Zenbat urterekin?
- 35 urterekin.
- Zergatik joan zinen?


• Han hemen baino premia haundiagoa dagoelako. Hemen ere badago lana, baina Afrikan jendeak gure behar haundiagoa dauka, hango egoera gogorragoa da.

• Zein izan zure lehenengo etxea Afrikan?

• La Makaran, Togoko nazioan dagoen herri batean euki nuen lehenengo etxea.

• Zeintzuk izan ziren zure lehenengo lagunak?

• Lehenengokoak komunidadeko jendea izan zen. Gero poliki-poliki bertako jendea ezagutuaz joan nintzen, hango neska-mutikoak, euren gurasoak, komunidadearen inguruan ibiltzen zen jendea,



gaixoak...

• Ze inpresio egin zizun Afrikak?

• Pobrezia haundia zegoela bertan, baina oso borondate oneko jendearekin aurkitu nintzen. Nahiz eta pobrezian bizi eta gauza gutxi euki bizitzeko beti esker onekoak izaten dira.

Lekua ere oso pobrea iruditu zitzaidan, miseria haundiko lekua: etxeak lastozko teilatuekin

eginda zeuden, bideak asfaltatu barik...

• Herriminik bai?

• Ez, etxeaz eta herriaz akordatu askotan akordetan nintzen, baina oso gustora nengoenez ez neukan herriminik.

• Atxabaltatik gehien gustetan zaizuna?

• Herria eta nire auzoa, Azatza.

• Eta gutxien?

• Jendeak lehengo ohiturak alde batera utzi

dituela, eta oso materialista bihurtu dela.

• Ze alde dago lehengo Atxabalta eta oraingoaren artean?

• Aldaketa haundiak daude, etxe asko egin dira eta jendeak orain diru gehiago dauka. Oso bizimodu desberdina da oraingoa: lehen guk baserrian lan asko egin behar izaten genuen eta orain, barriz, jendea askoz hobeto bizi da, oporretan ere joaten da.

• Ze alde dago hango jendea eta heringoaren artean?

• Lehenengo azalaren kolorearen diferentzia eta gero ohiturak. Hango jendea oso gauza gutxirekin bizi da eta jatekorik ez badaukate egun batean, aguantatu egiten dute.

—Ohitura bereziak ere badaukate: zaharrak hiltzen direnean jaia ospatzen dute. Euredako hildako horrek bete du bere bizitza eta ez daukate zertan triste egon.

• Zeure burua atxabaltartzat daukazu?


• Bai, guztiz.

• Anekdotarik?

• Behin bertako bat etorri zitzaigun gaixorik zegoela esanez, pastila eferbeszente bat eman genion, baina harek ataraten zuen bitsa ikusita beldurtu egin zen eta ez zuen pastila hartu gura izan.

Urte bat pasatu da Juan Ramon Arana hil zela. Berak betidanik izan zuen kirolarekiko afizioa, gaztetan ere futbola, mendizaletasuna eta gimnasia praktiketan zuen. Bai lehen eta bai gero ere bere izate osoa jartzen zuen egiten zuen gauza guztietan, batez ere kirol gaietan. kirol konpetizioak eta gazteak horretarako gertatzen jakin zuen, bere denbora eta borondate osoa jarriaz.

ALMENEN eta baillarako kirol kontuetan lan handia egin zuen, larr-



Aurten U.D.A taldeak karnet berezia atarako du, ikasle eta langabetuendako. Karnet hori behar duenak, domekan futbol zelaira joan dadila, direktibakoren batekin egoteko.

Juan Ramonen oroimenez

gune askotan aurrera egin ez. Beretako askoz inportanteagoa zen parte hartu eta lagun ona izatea eta horretara animetan gintuen beti.

Bere lanarekin jarraitzeko lagun talde batek komisioko bat sortu du, ideia eta asmo batzuk martxan jartzeko asmotan. Urtero kirol bataukeratu da, berari buruz hitzaldiak, erakusketak, idazlan eta marrazki txapelketak egingo dira. Ikastola

barruko txapelketak ere egongo dira. Aurten komisioko honek, futbola aztertuko du. Horretarako irailaren 11 eta 13rako Infantil Mailako Dorletako Amaren Futbol txapelketa berrantolatu dute.

Txapelketa horretako partaideak Athletia, Erreal, Alavesa eta Almen izango dira.

Honako partidu hauek jokatu dira: Irailaren 11n, arratsaldeko 5etan Erreal-Almen k.E eta arratsaldeko

6,30etan Athletia-Arabako selekzioaren kontra. 3. eta 4. postuetarako partidua irailaren 13an jokatu da, arratsaldeko 4,30etan, eta 6etan finala.

Guzti horiek, gastu ekonomiko bat daukanez, denon laguntasunaren beharrea daude komisiokoak. Hori dela eta, edozein laguntasun mota ondo etorriko zaie.

Ea torneoak ondo urteten duen, berak hori eta gehiago merezi zuen eta.

IOSU
URDAITEGIA
MITARTE, 1 eta
GORBEA, 8

MITARTE
GARAI
(JATETXEA)
ARIENTZAN
TFNOA: 79 17 51

Sport
SASIAIN
Zaraia, 4
Tfnoa: 79 77 63
Aretxabaleta





Sasoian sasoiko eta garaian garaiko ohiturak herri baten "intraistoria" adierazten duten seinaleak dira.

Ohitura batzuk galduaz doaz, beste batzuk hor dira. Herri mailan gorderik dagoen bat, jende nagusien artean, batez ere, Arantzazuko eguna da.

Iraileko lehen astelehenean Aretxabaltako herria Arantzazura joatea aspaldiko ohitura da. Lehen oinez joaten ziren, bezperatik. Alkateak eta zinegotziek monastegian afaldu eta lo egiten zuten. Hurrengo egunean herri osoarekin meza entzun eta bertan bazkaltzen

zuten. Gaur egun jende gehiena kotxez joaten da.

Urte hartan, 1920.ean, Arantzazuko Amabijirna, Gipuzkoako Zaindari izendatu zuten.

Aretxabaltako Udalak, lehengo usuarioari jarraituz, irailaren 4ean, zapatua, herriko sasi bi-

deak aztertu zituen, hurrengo egunean, domekan Arantzazura abiatu eta hona hemen irailaren 6an, astelehena, meza ostean ataratako argazkia: orduko Udala frantzizkotarrekin.

Ezkerretik hasita: Pio Pagoaga (aguazila), Larrinoko abadea, Jose Miguel Arenaza (Areantza txikienekoa), Arkarazoko abadea, Ignacio Usandizaga (idazkaria), Andres Izagirre, Eustaquio Alkorta (Alkatea), (X), Simon Kortazar, Pedro Lasagabaster, D. Andres (mojetako kapelaua), Canuto (Leibar), (X), Timoteo Etxebarria (Kukuzulo), Pedro Unzueta (Bedoñako Sakritau baserrikoa), D. Fermin (Bedoñako abadea).

ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
- Asmetan dutenen artean Everest espedizioko kamiseta bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Non dago argazkian ageri den iturria?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Kanposantuan)




Aurreko lehiaketaren irabazlea ASUN ZUAZABEITIA izan da. Zorionak!

Erantzuna:

- Izen-abizenak:
- Helbidea:
- Tfnoa:

AMANTALAZ



Oraingoan sukaldaria: Fernando Amozarrain

Marmitakoa

Sei lagunendako osagaiak:
 kilo bat patata.
 3/4 kilo atun.
 2 piper gorri.
 6 piper berde.
 2 kipula.
 Koilarakada bat piperrauts.
 Gatza eta 4 tomate.

Zelan egin:

Patatak garbitu, zuritu eta txikitu. Piper gorriak tiratan zatitu eta piper berdeak, kipula eta tomatea zati txikitan. Atuna garbitu eta azala kendu. Patatak frijitu eta olio horretan piperrak kipula eta tomatea ere frijitu. Atuna olio berotan 2 minututan frijitu. Lapiko batean patatak jarri eta beste batean ura, ur hau irekiteman patatetara bota eta 20minututan euki. Piperra, kipula eta piperrautsa gehitu eta gero atuna gaineratu.

POESIA

EGUNEROKOA
ETA KITTO

Igaro dira jadanik garai onak,
 munduan eginiko bidaiak,
 hondartzan igarotako ordu amaigabeak,
 lagunak egin ditugun momentuak...
 Alde, ihes egin dute.
 Kaiolako txoriak askatasuna
 aurkitzen duen bezala,
 alde, ihes egin dute.
 Udazkeneko haizeak
 hostoak daramatzen bezala,
 alde, ihes egin dute.
 Eta jadanik sartuak gara betikoan.
 Eguneroko rutinan.
 Goiz jeiki eta lasterka lanera
 bertako iskanbilak eta keak jasatera.
 Bagoaz denok "stres"ean barrena
 ohartzeko ez dela gauza onena.
 Beti berdinak diren egunek
 udazken erromantikoaz batera
 agertu dute beren burua.
 Baina ez dezagun itxaropena gal, hau azkena
 galtzen bait da.
 Helduko dira
 denok eskuak zabalik itxarondako garaiak
 orduan berriz izango gera alaiak.
 Baina...
 hau bukatuta...
 betikoa, egunerokoa, rutina...

KOMIKIA



11 EGUAKOTXA

- Juan Ramon Arana futbol torneo: Almenen arratsaldeko 5tan Erreal-Almen K.E eta 6.30tan Athletia-Arabako selekzioa.

12 ZAPATUA

- Lehenengo Erregionalak futbol partidua: U.D.A - C.D Touring.

13 DOMEKA

- Zikloturisten irteera: Aretxabaleta-Arlaban-Urbina-Gasteiz-Ozaetako kurtzea-Ozaeta. (66 km).

- Zaraia mendi taldearekin: Kurtzebarri eguna.

- Juan Ramon Arana futbol torneo azken partidoak: 4.30etan eta 6etan.


- Murruxiko mendizale taldearekin: Kurtzebarri eguna. Meza , salda...

16 EGUAZTENA

- Karintia Euskadi ekitaldiak: 5,30etan Karintiaeta Euskal Herriko ikurrinei agurra.

- 5,45etan Foklore saioa.

- 6,15etan Oroigarri eta makila ematea Karintiako Lehendakariari.



20 DOMEKA

- Dorletako Eguna II. martxa zikloturista (intersoziala).

- Dorleta-Dorleta goizeko 9etan.

- Zaraia mendizale taldearekin: Besaide eguna.

- Murruxiko mendizale taldearen urteera: Besaide eguna.

ARETXAZOKA

Etxebizitzak

- Etxebizitza salgai, kamara eta garajez. Erosi nahi duenak, Dis-Tel dendara jo dezala.

- Bost ikaslek etxebizitza behar dute Arrasate inguruan. Tfnoa: 88 67 23

- Garaje bat salgai, Murubide plazan. 8. zenbakia, goiko pisua. Tfnoa: 77 00 58

Lana

- Injeneritza ikasle bat prest, matematikak eta fisikako klaseak emateko. Tfnoa: 79 10 51

- Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsaldez 79 72 92 tfnora.

Denetarik

- Andra Mari bezperan urrezko eraztun bat topatu zen. Eraztuna seilo bat da. Eraztunaren jabea etorri dadila Aretxagazetak Kultur-Etxean daukan bulegora.

- Umeentzako seaska eta kalean ibiltzeko karroa salgai. Tfnoa: 79 77 79

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT

Audi VW

**GARAGE
OSKAR**

Basabe poligonoa
A - 2 - 4
Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIK

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak

Industrialdea
ARETXABAETA
Tfnoa: 79 31 84

**GARAGE
" EDER "**

Karrozeria
mekanikoa

IBARRA Z/A
Tfnoa: 791666
ARETXABAETA

Mobiliario

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

ARENZA

BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAETA

EROSKI

Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.
DURANA ETA ARALAR KALEETAN
Tfno: 79 16 05

OILASKO - URDAITEGI - IZOZKIAK

IÑAKI

Gipuzkoako plaza, 1 Tfnoa: 77 02 99
ARETXABAETA

NERIAN

Loradenda

Otalora, 14 behea
Tfnoa: 79.70 66

" HERRASTI "
AKEITA ETXEA

CAFES
Brasilena

Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

DORLAK

DORLA, S.A

ARETXABAETA
BASABE POLIGONOA, C.O.2.3
Tfnoa eta Fax (943) 79 82 77

Troxhitegi, S.L.

**GOZODENDA
eta IZOZKIDENDA**

Otalora Kalea; 4
Tfnoa: 77 13 57

IBARRA ESTANKOA

TABAKO, IKAS MATERIALA ETA ZERGA
IMPRIMAKIEN SALMENTA

Bizkaia, 3
Tfnoa: 79 23 77
ARETXABAETA

OPEL GME GM

GARAGE NORTE, S.L

OPEL AGENTZIA OFIZIALA

Basabe pasealekua - A-13 - Tfnoa: 79 62 65

MAITATUZ MINTZATU



EUSKARA IKASTAROAK 1992-93

Maila guztiak: EUSKALDUNTZEN, ALFABETATZEN eta EGA

ERRITMOAK	IRAUPENA	PREZIOA
Egunero 2 ordu	Iraila-Ekaina	18.700pzta
Egunero 3 ordu	Iraila-Ekaina	28.000pzta
Egunero 5 ordu	Iraila-Otsaila	24.300pzta
	Otsaila-Ekaina	24.300pzta

MATRIKULALDIA

Irailaren 1etik aurrera zabalik

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 9etatik 1era
Arratsaldez: 3etatik 7etara

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Durana, 11 (Aretxabaleta) Tfnoa: 79 21 68